

Luis Choury

*Burgue-Erreiti,
Nafarroa
Beherea (1937)*

Aurkibidea

Biografia



1937ko ekainaren 6an
Burguen sortua, Biarnoko
mugan, Serèr etxean. Aita
zuberotarra zen jaiotzez,
Garindainekoa; ama, berriz,
amikuztarra, Amorotzekoa.
Kantonierra zen aita, eta ama
menaiu atxikitzailea.
Gamuera ezkondu zen eta bi
haur ukan zituen. Lur Berri
kooperatiban lan egina.

Zintak

BUE-001

- **Proiektua:** Alex Artzelus Mujika
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artzelus, Alex
- **Data:** 2015-02-10
- **Iraupena:** 45 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Artzelus, Alex
- **Emalea:** Artzelus, Alex

BUE-002

- **Proiektua:** Alex Artzelus Mujika
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artzelus, Alex
- **Data:** 2015-02-10
- **Iraupena:** 65 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Artzelus, Alex
- **Emalea:** Artzelus, Alex

Pasarteak

1. Burgue-Erreiti sorterrria

- **Erref:** BUE-001/002
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:00:20. **Bukatu:** 00:02:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa

Laburpena:

Burgue-Erreitin sortu zen. Gehienak biarnesak ziren han, baina, bere gurasoak euskaldunak ziren. 23 urtera arte bizi izan zen han. Han biarnesez ere mintzo zen.

Transkripzioa

- Non sortua?
- Nun sortia? Sortia niz eta Berguein, "Bergouey", e... Biarnoko partian da hori.
- A bai e?
- Bai, hemen jüntan, ez da /ezta/ ürrün. Hamar kilometran da, hamar, hamabi kilometretan hementik e, Gamuetik. Ba jünta da, Biarnoko... Biarno ta Eskual Herriin artian hori.
- Eta euskaldun ziren han, herri horretan?
- E be... baziren eskualdunak, bena parte handienak biarnesak ziren. Bana ene aita eta amak eskualduna zen e.
- Amikuztarrak?
- Amikuztarrak. Amikuztarrak bena ene aita Amiküzen bizi izan dena, bena sortzez Xüberuan.
- Sortzez Xiberoan?
- Bai.
- Eta...
- Eta ama... ama Amikuzen.

- Zer... zer herritakoak ziren?
 - Eta ama e... sortia zen eta... Amortzen, eta aita sortia Gaendaiñen.
 - A Garindainen, ba, ba, ba. Pastoral egin baitzuten.
 - Bai, bai, jüsto bai. Ba. Bena gazteik juana zen Amiküzen, hemen jin ziren hunat, Amiküzeat, e... gazteik, demora heetan e... familia handiak beitziren, behar ziren, e... mutil gisa jin zen, eta...
 - Eta noiz arte bizi izan zinen, han juntan? Noiz artio bizi izan zinen junta hartan, herri hartan? Biarnon?
 - Be ni... Berguein?
 - Bai, Burguen?
 - E be egon niz hogoita... hogoita hiru urte artio, hemen egon niz. Gio hunat jin, Donapaleüat, eta...
 - Donapaleura?
 - Bai.
 - Bon, atxiki duzu ahalaz ere euskara e?
 - Bai, e... han nintzalaik, e... biarnesa emaiten nien, zeren bortxaz, han denek biarnesa ari zien, bena aita eta amekin, eskuaraz ari nintzan.
 - Hori da. Beraz biarnesa ere badakizu?
 - Aspaldian ez dut /eztut/ pratikatu, bena emaiten dut, ba.
 - Bai, entseatzen zara bederen.

2. Gamueko gaztelua eraberritzea

- **Erref:** BUE-001/003
- **Iraupena:** 0:04:41. **Hasi:** 00:02:09. **Bukatu:** 00:06:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

Gamue herrira bizitzera etorri zen eta bertako gazteluaz interesatu zen. Jauregia erortzen ari zen, baina 1983an auzapezak herriari eman zion. Orduan teilatua berritu zioten. Monumentu historiko izendapenarekin gauza asko hobetu ziren. Louis erretretan sartu zelarik bilakatu zen gazteluaz arduratzen den elkartearen buru.

Transkripzioa

- Eta beraz, gero, Donapaleura jin zinen?
 - Bai.
 - Eta gero nola interesatu zinen Gamueko jauregi honetaz eta?
 - Gio e... Gamuen eta Gamuen jin nintzan, egoitea, ni izan nintzan e... lanian ari izan nintzan Lür Berrin, kooperatiban.
 - A? A so egizu.
 - Ordian ondoan zen, eta hemen e... emaztia hemengo zen, Gamueko, eta hemen bizitzen niz, etxia banien hemen einik geo, eta geoztik, hemen bizi niz, Gamuen. Eta gio gazteluain istorioa, edo hemen "gaztelua", "enfin" hemen "jaureia" deitzen duu bana "gaztelua", berdin da, ondoan zen, eta enterezatü nintzan geo oai, ondoan nintzan, eta... hola.
 - Eta zu jin zinelarik, gaztelua ez zen orain bezala egonen?
 - Nik eta... ni e... hunat jin aitzin, e... beste nooit bazen eta hemengo auzapeza, eta Magné-Elgart deitzen zen, hak zien hartu hori zeen eta e... jaurei hau e... ari zen... lürreat juanen zen, e... arrunt e... barratzen ari zen. Eta ordian hemengo nausiak, Dabbadie, Michel Dabbadie nausiak, hemen proposatü zen herriari: " E... emaiten dauzut,e... kitoik, e... guai hartzen

duzie, bertzenez ez balin /ezpalin/ baduzie hartzen, nik botatzen dut, lürreat... jaurei hori." Ordian hemego eta auzapeza, demoran, Magné-Elgart, ostian erran dutana, hak erran zien: "Bon be, bada istorioa, behar duu hori beiratu herrian." Eta erran zien: "Eta hartiko duu." Eta ordian herriak hartu duu, bena behar da jakin hemen herri ttipi bat dela. Eta herri ttipia, erran nahi bitu eta diru güti, eta ordian behar zela kasu ein... Ordian mila-bederatziehün-ta-lautan-hogoita-hiruan, herriak hartu zien hori, eta ze ein zuten, arrunt? Teilatia arraein zuten. Ez nintzan /enintzan/ oono sartia e... hor eta... oai... eta... zerin... Ordian ein zuten, teliatia berritu, eta egon zen hola, hamar urtez pasa, eta ostian erran dutan bezala, herri ttipi bat behar da hanitz kasu ein, herri batian bada hanitz gauza eiteko, ordian ez zen /etzen/ hau eta lehenik pasatzen ahal. Ordian e... hamar urte beanto, mila-bederatziehüneta-lautahogoita-hamahiruan, e... delako "Monuments Historiques", e... Frantzian [...], unartu zuten, ohartu ziren zeen bazen beste gauza bat, hemen ingurian, baziren beste zazpi, hola.

- "Monuments Historiques"?

- E... gaztelu, zazpi gaztelüin ingürian, hola, hola eta tuntur batzun gainian, hola, eta "motte féodale" deitzen da eta... Ordian e... zortzietaik, bakarrik zen gelditzen. Ordian hek ze ein zuten? Inzkritu zuten eta "Inventaire des Monuments Historiques", eta hartu zuten, unartu zuten, eta ordian e... laguntza eman zuten herriari eta arraezartzeko guai egun den bezala. Behar zen hola. Eta ni arribatu niz, eta hor arribatu niz eta mila-bederatziehüneta... ba kasik bi mila... ba mila-bederatziehüneta-lautanhogoita-hamabostian, sartü nintzan hemen, ordian nik eta... ene erretreta hartu nien. Guai Lür Berri ütziik, eta erretreta hartü nien, eta ordian e... Magné-Elgart merak, auzapezak, erran zatan: "Eta behar... laundu... zeit ein behar duk, eta launtza behar diat eta amiñi bat e... animatzeko eta jaurei hori." Hola. Eta ordian e... sartü nintzan haekin, hola. Eta hua [...] fite e... mila-bederatzi... hiru urte beantago hil zen e... zendu zen hua, Magné-Elgart, eta ordian, bon, hain ordaria hartü nien, mila-bederatziehüneta-lautanhogoita-hiruan, herriak hartü zielaik, Magné-Elgart-ek ein zien eta... azoziazione bat montatü, elkarte bat montatu zien, eta oai launak biltzeko, guai amiñi bat heen parte hartzeko [...]. Eta ordian nik hain lekia hartü nien.

3. Etxetiarrak eta nagusiak

- **Erref:** BUE-001/004
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:06:50. **Bukatu:** 00:10:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Herrikoak etxetiarrak ziren (maizterrak). Ekoizten zutenaren erdia eman behar izaten zioten nagusiari hilabete-sari modura. Dena eskuz egiten zuten, eta behiak eta idiak baliatzen zituzten. Mende luzaz iraun duen bizimodua da eta 1960an oraindik ere 10etik 8 etxetiarrak ziren. Mekanika dela medio nagusiek euren lurra lantzen hasi ziren eta etxetiarrak langile partitu ziren. Istorio horiek kontatzen dira Gamueko gazteluaren beheko solairuan dagoen museoan.

Transkripzioa

- Eta gero, erran behar da halako museo ttipi bat edo muntatu duzula.

- Bai, ordian müseo hori eta hark, hak eina zien deia, zeen... erten zien beti: "bon, hori hartzen duu, bana ez da /ezta/ hori ützi behar e... hetsiik ez, zerratüik, behar da zeit bizi eman."

- Erakutsi, ez?

- Erakutsi! Ordian ein zien, lehen salan, e... guai e... lehen salan, peko salan, e... nahi zien aipatu herriko bizia, demoran [...] bizia. Hemen laborantxa dira, laborariak dira haboxiak e. Denak laborantxako lür lanetan ari dira. 'Ta bazen sistima demoran, hemen pratikatzen zena, erten dute, etxetierrak ziren, "etxetierrak" hemen badakizu, laborariak ziren, bere familiaekin hartzen zuten etxalde bat, bana ez zien, ez zien /etzien/ berea, behar zien pagatu alokazionia. Ordian ez zen /etzen/ guai bezala demora heetan, partekatzen ziren, denak, gauzak, erreholtak. Eman deza(u)n eta, alor batian, ogia bazen, edo artua, edo... pagatzeko, erdizka eiten zituzten /zuzten/ nausiekin. Zeen eta etxalde hua, alokazionian zen, ez zen /etzen/ laborariari. Behar zien, Jaun batena zen. Ordian pagatzeko, parteka... eta partekatzen zuten eta... erreholtak. Erreholtak edo kabalak´e, guai, behiak edo aatxiak saltzian, erdizkan eiten zituzten /zuzten/. E... hola. Eta ordian, heen, sala huntan, "enfin" peko salan, ein duu, agertaazi hori, istorio hori, nola eiten zen, partekatzen, ta nola ari ziren lanian... Demora heetan, ez zen /etzen/ tresnaik, ez zen /etzen/ eta... traktürrik, eskuko lan zen. Laborariak beti arnes bat eskütan bazen. Eta ari ziren lanian behiekin eta idiekin, traktürrik ez ziren /etziren/ oono hor! Hortaakotz, ordian ez zen... ez zen /etzen/ guai laborantxa e. Ta hemen bazen zer bat, hemen laborari etxiak, etxaldiak, ttipiak ziren. Eta familia handiak! Erran nahi bitü erreholtain erdiaekin, behar zien eta etxetiarrak behar zien bere familia ta biziaazi heen, eta e... heen segida sortatu... seurtatu. Hola. Ordian e... hori ein zien, eta peko estaian, guai istorioa, guai laborarien historia, eta istorio hori, erten dutana, zumait mendez, sistima hori martxatu da e! Eta guai ez da /ezta/ hori eta [...] holakoik! Etxetiarrak, ez direla guai etxetierrak e! Eta... mila-bederatziehüneta-hirutan-hogoian, hemen oono, herrian, baziren hogoita hamabi eta... etxalde. Hogoita hamabietaik, hogoita bost etxetier. Erran nahi beitü hamarretaik zortziak etxetierrak zirela. Bestiak nausiak ziren. Ta gio, zer gertatu da? Mekanika jin da, traktürrik jin dira, maxinak jin dira. Ordian badakizu, arnes horiekin, gehiao eta lan eiten zen. Ezin eta behi pare batek [...] eiten zen, traktür batekila. Ordian ze ein dute? Nausiak uzten zituzten /zuzten/ traktürrik, eta beren lürra berri arrahartu, eta etxetierrak juan dira... langile. Demora heetan hatzamaiten zuten lana guai beno aisio. Ordian... ordian juan dira langile. Eta gio, egun, ez da /ezta/ hogoita hamabi etxalde, ordian bezala. Egun... egun badira bedeatzi, eta bedeatzi etxeko jaun e, etxetiarrak e... juanak ziren.

- Zer kanbioa...

- "Voilà", kanbioa, kanbio zen. Hola eta etxetiarren istorioa.

4. Da Vinci-ren planoetatik abiatuz, maketak egin!

- **Erref:** BUE-001/005
- **Iraupena:** 0:03:41. **Hasi:** 00:10:50. **Bukatu:** 00:14:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Artisauak

Laburpena:

Auzapezak gazteluaren goiko solairuan ere zerbait egin nahi izan zuen, eta Leonardo Da Vinci-ren planoetatik abiatuz egindako maketak jartzea otu

zitzaian. Pariseko Cité des sciences-era joan zen Louis eta han halako maketa batzuk ikusi. Biziki interesatu eta planoak hartuta maketak egiten hasi zen poliki-poliki. Azkenerako, 33 egin zituen, denak eskuz. Garai hartako mekanika nolakoa zen erakutsi nahi zion gaur egungo gizarteari. .

Transkripzioa

- Eta gio, gaiñeko sala, hori hemen eta laborarien istorioa da e... Bana gaiñeko salan, beste historia da, zeen eta guai hua zendü zelaik, erran zatan eni eta: "Gaiñeko partia ein... arranja... - ez du /eztu/ ezautu e... finitüik gaiñeko partia hark, hil da guai... hil izan da lehen - Ez dakit /eztakit/ batee zer einen duun gaiñeko parte hartan." Ordian eta... hola ideia jin zen, hola, gaiñeko parteen eta badakizu, ez beita /ezpeita/ lekü han... hanitz hemen, lekü ttipian, ordian pentsatu ginien eta... zeit aise eta eiteko eskalierretan eta hola, maketa batzü eiteko, maketa batzü, jin zaukün ideia, e... Léonard de Vinciin eta... mekaniko sistema ezartzeko maketetan emiak. Hak pentsatü sistimak agertzekua. Eta ordian e... ez zen /etzen/ aise hatzemaitia, bena izan nintzan demora heetan, Paisen bazen esposizionia, han e... "La Cité des Sciences" deitzen dena, Parisen, eta han agertü zen, egon ziren esposizionian maketa batzü, italianuk einik, bistan dena. [...] han izan nintzen ikusten eta agradatu zatazün, eta gio ari nintzan: "Mais..." - Ez nien /enien/ ene bizian sekulan maketaik egin e - eta behar niela [...], eta ordian hango... han hatzemanik e... bon, planak edo fotoak, eta han zien maxinetaik, liburua erosi nien han, eta hartaik eta... abiatu maxinatin. Biga, hiru. Ordian bizi zen oono, eman nitien bizpahiru [einik]. Erran zatan: "Beste bizpahiru eiten ahal badituk /batuk/, gero untsa gituk! Eta arranjatüik bai! Eta amiñi bat." Eta bon eta... egun badira hogoita... hogoita hamahiru...hogoita hamabi... hogoita hamahiru maketak, guai Léonard de Vinciin sistiman guai, pentsatiak, hola, gaiñeko salan.

- Eta bon, ez zen aise izanen ez? Nehoiz maketa bat ein gabe, eta hartu planoak eta hortik holako maketa konplikatuak egitea...

- Ba e... ba! Behar da, konplikatiak, e... untsa esplikatia zen e... liburian, untsa esplikatia, bena behar da, nik ez dut /eztut/ tresnaik, denak eskuz einak dira, maxina horiek.

- Esku abilak!

- [...] abliak? Batee! Nik ... ein balin baditut /batut/, nornahik eiten ahal ditu /tu/! Bena, behar da, bon, seitu, amiñi bat, planak, eta arribatzen gira bai eitia. Denak martxan dira e!

- Ba, ba, ikusi nuen ba!

- Guai... guai... guai... noit heldu delaik, bisitatze hola, ikusten ditu /tu/ denak martxan, hola ikusten dute lehen... leheneko sistima mekanikan nola eina zen. Ez züten /etzüten/ prentsa... pentsatia! Eta egungo maxinak, hortaik abiatu dira, beti geo, beti... beti aitzina jua, bena sistima deparrian, hori zen! Beti e... hola! Geoztik e...hor, demora heetan ez zen motürrik, ez zen /etzen/ eletrikaik!

- Ez.

- Behar zen eta... [...] hurarekin juanaazi! Egun kanbio da. Bada...moturrak badira, badira eletronika, badira behar dienak e... Bena... Ordian denak kanbia... Bena sistima, mekanikain sistima, deparra, deia hor zen, e.

- Ba, baina nola profitatzen zuten? Ba indar guti izanik ere, erroten zera, erroten bitartez eta...

- Bai, bai, bai, bai.

- Gauzak handiak mugiarazteko ez?

- Justu-justua, eta ez zen kario! Hura ez zen pagatzen! Hura, guai... ez zen /etzen/ gusta! Guai eletrika bada!

5. Da Vinciren ideietako asko ez dira sekula martxan jarri

- **Erref:** BUE-001/006
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:14:31. **Bukatu:** 00:17:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk

Laburpena:

Gizona airean jartzeko makina adibidez ez da sekula martxan jarri, aitzurtzeko makina ere ez. Gruak eta eiherak edo errotak martxan jarri dira, eta gaur egungo tresnen oinarria dira.

Transkripzioa

- Behar da pagatu, eletrika!
- Ba.
- Bana demoran... errotain, hurak emaiten zien, ez zen /etzen/ pagatzen!
- Bai. Eta iragan aldian, erran zenigun horietako maketa anitzetako... ba anitz ez zirela gero martxan ezarri, bere denboran.
- A ba, ba, bai! Ba, ba, bistan dena! Bada anitza gauza, ba ikusten ditut /tut/ gaiñian, ez direnak /eztirenak/ martxatzen! Konpaazioneat eta egina zien eta... Gizona airian joanaazteko maxina, guai xuriak bezala! Hua re ez da /ezta/ sekulan martxatu! Bana ideia ukan zien, [...] pedalatuz eta joanen zela, hegalak higi... higituz eta gio martxatiko zela! Bana hua ez da /ezta/ sekulan martxatu! Pentsatu zien helikoptera. Helikoptera hala-hala, ideia ukan zien, bena ideia hartatik egin dute helikoptera! Ala(b)aina ez da /ezta/ martxatu! Hegal bat egin zien [...] hak, eta behar zen joanaazi, bana bistan (da)... ez zen /etzen/ moturrik, hain ingurazteko! Airian ez da /ezta/ hura emaiten ahal! E! Ordian... ordian ez da /ezta/ martxatu! Eta ba anitz gauza hola... Laborantxako max(ina)... tresnate badut eta... aitzurra ar(i)tzeko, otomatikan, bana... ez da /ezta/ sekulan martxatu! Ez da /ezta/ posible, animaleko tresna badute eginik, eta izigarriko karga bazien, pizia, bi, bi, bi tresne ttipi, bi aitzür joanaazteko, ez zen /etzen/ posible, eta ez da /ezta/... ez da /ezta/ martxatu! Ta anitz holako... Guai han, parte handia dienak, guai eiherak eta horiek, horiek martxatu dira. Baziren tresnak, guai gauzan altxatzeko, treuillak eta guai... grüak eta horiek altxatzeko, horiek martxatu dira. Bana sistema, guaiko grüak hartzen badira, guai bistan dena, guai erran dutan bezala, motürak badira bena demoran, eta... kabalekilan inguratzen zituzten /ziuzten/ edo hurarekin, bena martxatu dira, eta sistema, guaiko maxinak e, hola dira e! Deparra hor zen, deja.
- Da Vinci?
- Sistema, bai.
- Beraz biziki gizon argia e!
- Nola?
- Biziki gizon argia izan behar zuen...
- A ba, ba, ba, ba, ba.
- Hori dena egiteko...
- Ba, ba.
- Hainbeste gauza...
- Gero badu biziki gauza pentsatüik, bestalde! Guai ez dira /eztira/ hor, ene maketetan denak hor e! Badü... bestela... Gio bistan dena, ostian erran dutan bezala, ez dira /eztira/ denak martxa tu e... Hori behar da... behar da konprenitu. Bena...
- Baina gero segur izanen dela bere lanetik anitz ez dena baliatu, edo ez dena... ez dena garatu...

- Bai.
 - Ez dena developatu...
 - Bai.
 - Bere lanetik anitz geldituko zen...
 - Bai, bai... Bada anitz gelditü. Bai, bai eta... Bena deja... badu bost ehün urte pasa e!
 - Ba...
 - Hori, ordian ez da /ezta/... gioztik eta... izana dira jendeak! Eskoletan eta... izana dira [...]! Hak deja pentsatü zien diela bost ehün urte [...]! Aintzinian zen! Ba...
 - Ba, baina bon, bera abiatu zen deusetatik, azkenean lehenago ez zen nehor izan halako... halako gauzak egin zituenik...

6. Louis maketa egile

- **Erref:** BUE-001/007
- **Iraupena:** 0:03:07. **Hasi:** 00:17:13. **Bukatu:** 00:20:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Artisauak

Laburpena:

Louis teknikaz liluratu zen. Eskolan teknikan eta mekanikan ibili izan da, baina eskuz egin ditu maketak eta ez da zeregin erraza izan. Lehenik marrazkia egiten zuen, eta zur gogorra baliatzen zuen. Lotzen duen afizioa da.

Transkripzioa

- Ba ba, ba, ba, ba. Bera, bere... bere higitia zen, bai. Bai, bai, ba, ba.
 - Eta zuk beraz, zu beraz loriatu zara? Da Vinciren lan horrekin... Maite ukan duzu anitz.
 - Ba, ba... maite, zendako? Guai... e... guai e... Ba teknina eta... maite ukan dut e! Guai... haik teknika nola pentsatü zien... Historia gehioo, teknikan agratu zatak. Hain eta... eiteko manera. Eta... hola eta hasi [...] Guai gustü... maketa horiek ikusten duzun bezala, badira errotak, badira eta... angrenajak, badira eta... eta... puliak, badira hoietatik, eta joanaazteko horiek behar [...]. Ordian xantza nien nik eta hasi nintzalaik eskolan, abiatü nintzan amiñi bat teknikan e, mekanikako te(k)nikan. Ordian aisioo zen enetako abiatze eiteko. Bena hori behar zen erosten, erran dutan bezala, ez dira /eztira/ maxinak einak, exklüsivak dira. Ordian badakizu, errotatik [...] delaik, angrenaja, behar dira hortzak xüxen eman e! Ez da /ezta/, ez da /ezta/ hortz... erdi bat ützen ahal eta... behar dira xüxen ezari errotan. Horiek... ordian hori behar da amiñi bat kalkulatu, lehenik hasi gabe e! Behar dela... Ni ari izan niz moldean [...] nintzan e! Hartzen nien paper bat, kraion bat, eta lehenik diseinia egin behar nien. Geo hua, diseinia egin onduan, eta... aisioo zen geo. Berriz eiten nien eta... Ta gio zurez eina(k) dira. Ta ze zur [...] nien? Harrapatzen niena.
 - Zernahi?
 - "Enfin"... Ez, zernahi, bai, bena guai... angrenajak eta horiek eiteko, behar zen zur goor bat e. Haitza, konpaazioneat. Zur xuria hemen deitzen duu, hemengoa, peu... peupliatze... edo zer horietaik.... Horiek oso mardo dira e... angrenajaindako. Bena... eiteko guai e... züporren eta horien eiteko, zernahi zur e. Ni(k) biltzen nitien, guai exker eta eskuin e... atzamaiten niena [...].
 - Bon bon. Eta zenbat denbora behar zenuen, adibidez maketa baten

egiteko?

- A! Ez dut /eztut/ sekulan kondatu e! Ezin nintzan sekulan segidan [...] ari izan! Hasten nintzan, eta gio finitzen... eta... [...] joan behar banien, joaiten nintzan eta gio giilakoan, arra-aldatzen, ez dut /eztut/ ... zonbat demora, ez.

- Baina afizio polita e?

- Ba, eta ba... Bena... zeit hasten duzulaik, maketa bat konpaazioneat, behar duzu ikusi nola joanen den finitzian, e... aski lotzen zira gio berriz, eta bon... ez dut /eztut/... ez dut /eztut/ erten bezala, ez dut /eztut/ eta guai... egun hasi, eta bon, erran dut ostian joaiten nintzala hemen... Berriz heldü nintzan arra-fite, nahi nien ikusi finitzian nola... nola martxatiko zen! Liburietan ikusi nien, hola eta hola badoa, bena behar nien ikusi arribatzen nintzanez eta... ba, ba.

- Ba, ba, horrek ematen du halako zer bat ez? Grina bat, nola atarako den [...]

7. Gazteluko museoaren balioa

- **Erref:** BUE-001/008
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:20:20. **Bukatu:** 00:23:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk

Laburpena:

Gaztelua bera ederra da, baina barruan dagoena oso interesgarria da, inguruan ez dagoelako Da Vinciren maketarik. Gainera martxan nola ari diren ikus liteke. Inguruetan badira tresna zaharren museoak baina berak zerbait originala egin nahi izan zuen.</p>

Transkripzioa

- Bon, bon bana bederen hor dira eta jendeek maitatzen dituzte jiten direlarik ikustera.

- Ba, bai, behar e! Badakizu, gaztelu hemen eta ez da /ezta/... ez da/ezta/ handia e! Jendek heldü dielaik, bon... Badira zonbaitzü, jende zonbaitzük, harria maite dute. Harria e... guai e... obre horiek eta hola. Bana horiek ez dira / eztira/ hor sartzen. Kanpotik eta ikusten ute mürria, deitzen dute, hori holako mendekoa zen, hori holakoa, ta... barnekoa. Bana bestiak, habooxiak, heldü dienak, sartzen dienak, behar e, zeit bada ikusteko. Gainian, badakizu, ttipia dela, eta hortan, bai gostüa hartzen dute. Ba, bai. Zeen eta maketa horiek, hemen, ingurian, ez da /ezta/ besteik, Léonard de Vincik eginik... Behar da kasik eta juan eta...

- Pariserat, ez?

- Paise onduan, ba "enfin" eta han eta... Nola, erranen duta? Amboise herria, guai onduan. Han hila da e... Léonard de Vinci han, hila da eta... Ordian han badira müseo ederra(k), bada han einik eta... Han ez da/ ezta/ Gamueko jauregia e! Xato eta...[...] eta... Amboise, Clos Lucé-a. Ederra da, ez da /ezta/... ordian... beste... Guk ez duu beste moyenik eiteko e!

- Hor da, hor da...

- Horra.

- Baina bon...

- Bena, heen duuna, gure maketak, ibilitzen dira e... Muimenda badute e. Muitzen dira, guai martxan dira. Han, aldiz, ez da /ezta/ hunkitu behar, erten dute, ezkiatu da, hola eta hola martxan da, eta hola eta hola

martxan eta... guk eta... ez duu /eztuu/ zera bana joonaazten tuu.
 - [...] joanaraztea!
 - "Voilà!"
 - Eta gero meritua duena azkenean, hori da, ez? Ba... baliabide guti ukan e?
 - Bai.
 - Eta eginahal izatea. Baliabideak ukanik, errexka da.
 - Ba.
 - Baina deus guti izanik egitea, horrek du meritua.
 - Bai, bai. Heen, drolia atzemaiten dütena eta... nolaz eta... hemen dira maketa horiek. Léonard de Vinci. Ze... ze... nolaz Léonard de Vinci, ze... ze... nola izan da hemen? Ez da /ezta/ sekulan hemen izan, Léonard [...]!
 Bana istorioa, lehenen erten... ostian erran dutan bezala, Paisen ikusia dut zera, eta ikusia dut enteresenta zela guretako, zeen eta lekü ttipietan sartzen dira maketak; heen ez da /ezta/ handia... E... gue... gue gaztela ez da /ezta/... ez da /ezta/ handia, gure jauregia, ttipia da! Anitz lekütan, maketa horiek sartzean dira. Han anitz sartzean da, e. Hori enteresatü zatan, ordian eta ikusi nielaik. Eta beste gauza bat, e... eta... hemen, ingurian, ez da /ezta/... ez da /ezta/... ez da /ezta/ ikusi, ez da /ezta/ ikusten holakoik, e! Badira müseoak eta guai, tresna zahar horietaik eta... ez niz /eniz/ kuntre, joiten niz e! Ba... Banoa ni 're müseo horietaik ikusten. Bana onduan bagindien, onduan müseo batzük, guai tresna zahar, laborariko tresnak eta hori... Ez du /eztu/ balio onduan ber gauza arraeitia e! Behar da orotaik!
 - Hori da... Zerbait originala beraz?
 - Bai, bai. Eta... ez, ez...e... gustatzen hemen bisita... bisitak heldü dielaik, bo untsa antzamaiten dute, kuntent dira bai. Ez bitüte /ezpitüte/ bestetan ikusi!

8. Gariaren lanak I

- **Erref:** BUE-001/009
- **Iraupena:** 0:04:45. **Hasi:** 00:23:32. **Bukatu:** 00:28:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

Lurra itzultzeko brabanta erabiltzen zen behien edo idien indarrarekin ibiltzen zena. Area baliatzen zen ondotik ongi xehatzeko. Ondoren ereiten zen, ongarritu eta ondoren pikatu (moztu) segaz, sortetan bildu eta ondoren jo. Zaldiekin eta behiekin ibiltzen zen makina bat erabiltzen zen horretarako, batusa deitzen zutena.

Transkripzioa

- Eta bon, gero, erran duzu, lehenagoko laborantzan, ba dena eskuz egiten zela, beste... beste tresna batzuk zirela... Adibidez, e... beste [...] arnes batzuk zirela, eta adibidez, zer egiteko? Lurra jorratzeko edo... Nola erraten duzu? Lurra itzultzeko?
 - Ba itzültzeko, ba.
 - Ba.
 - Bai.
 - Eta horretarako adibidez, ze tresna erabiltzen ziren?
 - Tresnak i(b)iltzen zien eta... [...] batzü, lürrain itzültzekoa, e... hemen e...

beantago e... eta ka(b)alekila i(b)iltzen zienak, eta 'brabanta' deitzen zen [...] lürren itzültzeko. E... guai, lur... lürak behar zien itzuli, ildo bat aldian e! Guai... arnes, gualiko "tracteur" animalia horik, ikusten tuzie, eta lau, bost, sei, eta zom(b)ait aldi, zazpi ildo emaiten, batian. Heen dem(b)oran, baño zen e! Ta aski zen! Zeen behar zen eta behiekila, edo idiak, idiak bazielaik, gi(b)ilila ezartzen ziüzten, idiak azkar [...] behiak beno, eta zom(b)ait aldi bi pare behar zien, idiak eta behi pare bat aitzinila eta itzültzeko. Eta ildo bat aldian e! Ta bürü bat heltzila, behar zien inguratu eta berriz arraparti, kontrarioan eta beste ildo batin. Bai. Hori üdalatzeko.

- Eta gero, bazen lurra itzultzeko ere halako arnes bat, bi hortz zituen. Eta gero sartzen zen lurrerat, eta... Hori ezagutu duzu, zuk?

- E guk, bi hortz, guk ahia gindien, hemen.

- Area?

- Bai. lür itzüli ondoan, ahia, ahiazen eta guai, hortz batzü baziren e, bena ez biga! Bazen, baziren ba hogoi bat hortz, hola.

- Bai.

- Kargatia nola zen, eta huat errestan emaiten zuten e, lurra xehatzen zen han eta...

- Eta gero, bazen garia bil, garia hartzen zelarik...

- Bai.

- Gari hori jotzeko...

- A bai! Lehenik zom(b)ait aldiz, guai garia zen lekian, e... tira emaiten zen e, ka(b)aler behar zien tir(a). Behar zioten eta hortz bat bezala sartzen zen lehenik, garien eta... e... goiti emaiteko. E hola e... guai xarrüa, guai brabanta, aisago ari zen, guai [...].

- Bai.

- Guai harri... harri zen lekian e.

- Ba.

- Bai.

- Eta gero, garia hartzen zelarik, uzta hartzen zelarik, gari hori bereizteko, bihia eta lastoa bereizteko, horrendako ere bazena tresna bat? Bazena arnesik? Bihia, gariaren bihia eta lastoa diferentziatzeko...

- A...

- Ezagutzen duzua hori?

- Ez!

- Ba, garia jotzen baitzen, bihia alde baterat uzteko...

- A "mais", erran nahi duzu...

- Ogiarendako.

- Ogia? Nahi baduzu, a, han... han pikatzeko?

- Ba.

- Ogiain pikatzeko?

- Bai, ogiaren bihia alde batetik, eta bestetik lastoa...

- A ba, ba, ba! A ba bena hori, hori ba bana hori ni... guai erran dutana, hori ogien eiteko, lürrain preparatzeko zen, nik erten nuen...

- Bai.

- Üdalatzen, gio ahia eiten, ta gio ereiten zen...

- Ba.

- Eta gero behar zien [...] guai... unkaillü amiñi bat ezartzen zen e, guai unkaillia, ordian ungarria ezartzen züten e lehenik, ungarria, eta gero, unkaillü amiñi bat ezartzen züten e, hemen ordian e... "superposphate" emaiten zen ogiari, gio behar zen [...], eta gio behar zen, untia zelaik, behar zen pikatu...

- Bai.

- Ogia. Ba, lehen maxina ein ar(te)... aitzin, dalluz eiten zen, guai eskuz, e, behar zen pikatu, ta esteki, behar zen holako ezpalakin, esteki. Eta... gu(k) hori, etxerat eman guai eta... be... beexteko, zuk erran duzun bezala.

- Hori bera.
- Bihia lastoti
- Bereizteko.
- Ba, ba, ba
- Eta ze arnes zen horrendako?
- A, lehen maxina hemen, nik ez dut /eztut/ ezagutu bena e... hemen herri ondoan, bazen laborari [...] bat, eta hak [...] diena, maxina zen eta ttipi bat, eta hortz batzū, guai... ez zen /etzen/ motürrik, eta zaldiekin, edo behiekin inguratzen zuten, eta frantsesez erten da "le manège" guai, bena maneja bezala ingürian e, eta ere, ingüratzen züten eta... batüsa ttipi bat. Ta ordian eta... hortz batzū ziren, guai eta [...] igaiten zena, lastoa behar zen pasatu, eta bihia erortzen zen lürrerat, eta lastoa aitzina jüiten. Hola.
- Eta horri, horren euskarazko izenik badakizu? 'Larraina' edo...?
- Ez dakit /eztakit/.
- Ez zara oroitzen...
- Guk 'batüsa' deiten gindien beti, eta 'batüsa' deiten gindien...

9. Gariaren lanak II

- **Erref:** BUE-001/010
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:28:17. **Bukatu:** 00:30:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

Ondoren pikatzeko maknia etorri zen. Lurrunez ibiltzen ziren makinak ziren lehenik eta ezentzaz (gasolinaz) ibiltzen zirenak ondoren. Lastoarekin metak egiten ziren.

Transkripzioa

- Ez, ez, hori ez. 'Batusa' hemen deitzen zen hori. Bana gero e, maxina, erran bitüt, pikatzen bita dailliaekin, maxina jin zen pikatzekoa, guai eta sega bezala. Hori, tresna hori tiratzen zen behiekilan e, behar zen tiatu, bana hala-hala, maxina hak pikatzen zen, bana ez zien /etzien/ estekatzen. Behar züten eta, laborariek behar züten ezpalaekin bildu, holako guai berrogoita hamar zentimetra, hirutan hogoi zentimetreko errurian hola, biltzen zützen, esteki, eta hori, beti lehen bezala, etxiat emaiten, eta gio eta han, etxea eta arribatzen zen, eta herrian pasatzen zen gio empresa bat zen, bere maxina handiaekin ordian. Gio beti, hor aitzinian gira e, maxina handia, bapurraekin, ez [...] klabeekin ari izan! Gio bapürraekin inguazten, gio... gero jin dira traktürrek edo motürrek esantza jin dira, batüsain joanaazteko. Bana ... ez ziren /etziren/ ez ziren /etziren/ guaiko maxinak! Alorrian, guai dena alorrian pasatzen da. E, guai erten du, hemen deitzen da "moissonneuse-bateuse" horiek, eta batusa, han, alorrian eiten dena bihitzen. Lastoak eta [...] egoiten. Eta aldiz, dem(b)ora heetan, behar zen pikatu, etxerat ekari, eta gio heen, batusa pasatu. Eta gio eiten ziren bihia ezartzen beex, bistan dena, eta... eta lastoa, dem(b)ora heetan ez zen /etzen/ lastoa 're ez zen /etzen/ eta guai e... barnean ezartzen, lasto meta eiten zuten, haga... haga bat eta ezariz, eta hain ingürian meta lasto...
- Ze politikak e?
- Bai. Eta lasto hua baliatzen züten gio negian ka(b)alendako e.

10. Hariaren lanak

- **Erref:** BUE-001/011
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:30:00. **Bukatu:** 00:32:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Lihoa (linua) eta ehuleak

Laburpena:

"Le rouet" (gorua) erabiltzen zen haría egiteko. Ilea garbitu behar zen, eta "cardeuse"-arekin orrazten zen ondoren. Ez du ezagutu oihalak eskuz egiten.

Transkripzioa

- Eta gero, hemen dituzun beste arnes anitz, nik ikusi nituenak, bai eta ere hariaren egiteko, ez? Haria.
- Hariain eiteko.
- E [...]
- Bai, bai, bai. Bai. Bai, bai. Heen, heen dem(boran)... Ba, ba, ba, ba. Ba, bai. Hemen eta deitzen dugu frantsesez "le... le rouet". "Le rouet" hola, pedalaz eta...
- [...]
- "Voilà", hola, hori.
- Eta horren euskarazko izenik ez zara oroit?
- E eskuaraz?
- Bai.
- Ez, ez dut /eztut/ e...
- 'Gorua'?
- Ez dakit /eztakit/, ez dakit /eztakit/, ez dakit /eztakit/ eskuaraz nola deitzen den hori.
- "Le rouet", frantsesez?
- "Le... le rouet" frantsesez, ba. Hori bai. Eta ba, dena esküz, dena eskuz, orduko sistima.
- Eta nola hasten zen hori? Lehenbizi mozten zenuen ardiaren artileak...
- Bai.
- Eta gero, nola joaten zen? Hortik hasi, eta haria [...]?
- A behar zen eta, leheni(k), gio moztü, eta ikuzi. Ikuzi behar zen e ile hua. Eta gio, eta gio fi... fin-fina hola hariaz eta tiatuz, eta hola eiten zen e. Bai.
- Gero behar zen ere holako orrazi batzuk bezala, ez? [...] eta halako arnes batzuekin, hola behar zen...
- A ba, ba, ba. Ba, ba b! Ba, kardeza deitzen zen, bai. Bai, bai, bai. Bai.
- Eta gero, ba horrekin, erran duzun gorpil horrekin, errota horrekin gero...
- Bai, bai, bai. Hori haria, haria eiten. Bai, bai, bai.
- Holako gauza anitz, e?
- Bai.
- Guk ez dakigu hori e!
- Ez, ez, ez, ez, ez, ez, ez. Guai e... kanbiatia(k) dia. Guai horik oro, denak, maxina... maxina horik jin dielaik, denak eta goiti joan dira denak! Lehenooko zerak ahatziak dira bena lehenooko jendek izanak dira lanian e!
- Gero, zuk ez dakit ezagutu izan duzun, baina baziren emazte batzuk lehenago, ba hariarekin, jatsen eta egiteko, hola trikoten egiteko, hola hariak zituzten zur punta batekin bezala, eta horien lekuz kanbiatzen.
- A ba, ba, ba...
- Horiek ezagutu izan duzu?
- Ez, nik ez dut /eztut/ ezautu, jatsa, ez.

- Hola, eta gero...
- Ez, esküz ez dut /eztut/ ikusi. Maxinan ikusi tut.
- Maxina?
- Maxina. Ta heen bada oono, Donapaleün bada, Donapaleün bada üsina bat, hemen, Donapaleün ari dena, bana maxinekin e... Guai oiha! eiten eta guai eiten tuzten eta... bai.

11. Arotzak (errementariak)

- **Erref:** BUE-001/012
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:32:21. **Bukatu:** 00:35:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

Laburpena:

Arotzek (errementariak) tresnak konpontzen zituzten, eta animaliak ere ferratzen zituzten ferratokian. Burdinolarik ez du ezagutu. Tailer txikiak zituzten eta herri bakoitzean bana edo bina zeuden.

Transkripzioa

- Eta arotzak, ezagutu dituzu hemen? Arotzak, burdinarekin lan egiten zutenak...
- Burdiña'ekin?
- Bai, arotzak, egiten zutenak e...
- A ba, ba, bai, bai, bai, bai. Ba, baziren! Herri güzietan baziren.
- Bai e?
- Herri güzietan. Herri güzietan. Heen ari zi'en eta, guai laborantxako tresnak eta xorroxten, eta guai üdalatzeko, eta ostian erran beitüt üdalatzeko brabantak eta ha'en lanak xorroxt... xorroxten eta... arnesak, eta aitzür eta behar zi'en xorroxtu. Ta beste gauza eiten zuten. Hemengo arotzek, beste gauza eiten zuten, behar zuten kaalia ferratu. Kaalia'ekin ari ziren. Ordian kaaliak behar ziren ferratu. Guai behiak, eta idiak, zaldia bezala ferratzen ziren.
- A bai e?
- A ba, ba, bai.
- Eta zer... non ferratzen ziren horiek?
- A'otzak!
- Arotzak?
- A ba, ba, ba, ba, ba. Herri güzi[etan]...
- [...] bazuten, ez?
- Bai. E... zaldiak egoiten ziren, maltxoak ziren zaldiak, estekan egoiten ziren, ez zen /etzen/ beharrik. Bena behiak eta idien(d)ako, ezartzen zuten eta, hemen deitzen gindiin guk 'ferrateia', e, ferrateia, ferra ezartzeko. Behar zi'en kaala hor esteki. Ze'en higitzen zen e, ez zen /etzen/... bazi'en mugimendu e! Ta hola a'otzak ari ziren, ta behar zi'en plantatu, behar zi'en eta ferra ein, zangoa'en arau.
- Ba.
- E, konpa'azione'at eta, behi gazte bat eta idi bat ez zuten /etzüten/ ber zangoa. Behar zen eta ferra ein zangoa'en arau.
- Eta gero, behia altxatzen zen, ez? Goratzen zen?
- Behar zi'en altxatu, [...]tu esteki, eta ez zen /etzen/ mugimendu'ik ein behar.
- Bon, bon, bon.

- Eta gero, arotzak lan egiten zuten ola horietarik ezagutu izan duzu? Olak, hori mailu bat ibiltzen zena [...] urarekin [...] mailu batzuk...

- Ba, ba...

- 'Pum', 'pum'...

- Ba, ba... Ez.

- Eta hauspoak, eta...

- Haskoak?

- Hauspoak.

- Ba! A'otzak bazien haskoak. Bena ez zien /etzien/ ura'ekin joana'azten. Behar zien eskuz ti'atu. Bazen eta korda bat, edo kadina bat, behar zen eta ti'atu, hauspo animale zen, hark airia emaiten zien, suia guai e...

- [...]?

- "Voilà". Emaiten zien...

- Baina eskuz egiten zuten?

- Eskuz.

- E zen urarekin [...]?

- Ez, ez, ez. Ba heen, a'otzen forja ttipiak zi'en gio. Ez zen /etzen/ eta... Ez.

- Handi horietarik ez zen?

- Ez, ez, ez, ez. Gio baziren holako... zuk erten duzuna, bena forja animaliak [...] 'ik guai e... erreken gainian ezartzen dena, guai e... zeiten joana'azteko, guai e... maxiniri joana'azteko. Bena a'otzek ez züten /etzüten/ maxina'ik, esküz eiten züten.

- Eskuz guzia?

- Bai.

- Eta herri bakoitzean bat?

- Dem(b)ora hetan, bazen herri bakotxean, bazen a'otz bat, bai.

- Bon, bon.

- Bai. Zum(b)ait aldiz biga e, herrian hola zen e.

12. Gamueko gazteluaren historia I

- **Erref:** BUE-001/013
- **Iraupena:** 0:04:57. **Hasi:** 00:35:14. **Bukatu:** 00:40:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

Gaztelua XI. mendean egina izan zen zurez. XIV. mendean eraberritu zuten harriz. XVI. mendean oraindik eta gehiago handitu zuten. Nafarroko erresumaren muga defendatzeko eraikiak dira gaztelu hau eta ondoko beste batzuk ere. Frantziako iraultzaz geroztik ez da inor bizi izan bertan. Goiko solairuan etxetiarrek emandako ondasunak gordetzen ziren. Lehen belaunaldia Camou zen, eta ondoren Gartion bilakatu ziren, segida arazoak zirela eta, iraultzara arte. Gero D'Abbadie lthorots familiak erosi zuen.

Transkripzioa

- Eta orain, hori aipaturik, Gamueren gainean mintzatuko gara, poxi bat. Hemen, gaztelu honetan gara... Honek... Hau noiz egina da, gaztelu hau?

- A ba, hemen "d'ailleurs", gaztelu hau eina zen eta... tuntur baten gainian... Ba lehenik eta... hameikaarren mendian abia... abiatü zen. Ordian ein zuten zurez, gaztelua. Eta... ba ez zien /etzien/, ez zen /etzen/ guai bezala, "enfin" lehen partia ez da ezta/ hor gehiao. Lehen partia zurez zen, eta hamalaogarren mendian ein zuten eta... handitu, harriz.

- Harriz?

- Harriz.

- Orain den bezala.

- Har... Guai den bezala. Eta bada oono mürrü bat, gelditzen dena, hori hor, eta hori hamalaogarren mendekoa da. Lehen eta, harriz lehena eina. Eta hori, hor gelditzen zen lehen, lehen gaztelua. Gio hamaseigarren mendian, hamaostgarren finitzian, hamaseigarrenian, handitu zuten, guai hemen gi'en lekian, hori e. Eta... ordian finkatu zuten hori, hamalaogarre[ne]ko mendeko mürrüin finkatü züten, eta atxikitzeko, bistan dena! Hala. Ordian guai, hemen, parte hau, hamaostgarren mende finitzian, hamaseigarrenian, guai e... da... diela bost ehun urte e. Guai...

- Ba, bada urte zenbait, e?

- Bai, bai, Bai.

- Beraz badu historia honek ere.

- Bai... badu istorioa ze'en eta... hemen eta... ostian erran dut bazela... beste zazpi baziren hemen ingürian. Bena dem(b)ora hetan, ez zen /etzen/ oono Frantzia hemen!

- A orduan...

- Nafarroa zen! Hemen jünta ez da /ezta/ ürrün e! E... limita, frontiera, ez da /ezta/ hemen. Harta'akoz erten dutana ostian, baziren zazpi, ürrün. Zendako? Ze'en frontiera gisa zen e. Hori surbeillatzen zuten hori, frontiera hori

- Behar zen begiratu...

- "Voilà", hori. Ordian guai... ez da /ezta/... ez da /ezta/ guaikoa. Eta ge'oztik, hau, Frantziako Errevolüzione izan dela'ik, e... mila zazpi ehün eta... berrogoita... berrogoita...

- Lauetan hogeita...?

- Lautan hogoita bede'atzian, eta... he'en... geroztik ez da /ezta/ nehor egon hemen e. Hau hetsi'ik izan da, eta guai eta... hor, hemengo jaunek, ostian erran beitüt etxetierrak bazirela hemen, hemengo jauna, nausia, hemengoa, eta baziren hemen etxetierrak, ingürian [...] ziren denak e. E... ordian, behar zen, etxetiar horiek behar züten errekolta ekari nausiari, paatzeko. Be'e... ostian erran dutan bezala, badakizu? Behar zen... Ordian hemen, estaia horik, eta baliatü dituzte /tuzte/ eta... ganer bezala. Etxetierrek hartzen zuten be'en partia paatzeko guai etxaldien partia, eta hemen ezartzen zuten, artoa eta [...] nausia, nausia'en partia.

- Bon, bon.

- Hola

- Beraz, hemengo jauna, zer zen? Bera, Camou bai eta ere? Izena Camou zuen?

- Lehen, eta jaunak, hemen, eta... Camou ziren. E... hamabigarren mendian, hamahiru, hamalao...eta hori e... ba hameikagarren mendian eta hamaseigarren mende artio Camou izan dira, hemen. Bana gio, badakizu, Camou familia... ez zen /etzen/... ez zen /etzen/ segida'ik. Ordian hemen, e... arra-alaba ttipi bat, hemen, espusatu da beste jaun batekin, Biarnokoa. Gassion familia.

- Gassion.

- Ba. Ordian, hek dute hartu Gamue'en partia, "enfin"... hartu dute. Eta hek, hemen atzemaiten ditugu /tuu/ hemen eta e... mila e... noizbait... Bai e... hemen egon dira hek mila, mila bede['atzi]... saldu zuten... Errevolüzionian sartu zuten. Bi... bi urte berantago, e. E... bi urte. "Voilà". Eta... eta gero, heekin guaiko nausia, oono familia hor da, hak ützi ziena herriari, hu'a da oono, "famille"... ostian erran dut, "famille Dabbadie", familia...

- Gabadi?

- 'Dabbadie', 'Dabbadie'.

- 'Dabbadie', bai.

- Bai. "Dabbadie d'lthorots". "Dabbadie d'lthorots". Hak, hek züten e'osia, ordian e. Erre... Errevo... Errevoluzionetik landa, Gassion e... gel... eta gelditü dela'ik, hek e'osi züten, eta hek dira nausi orotan, ingürian.

- Eta seguraz ere, herria bera ere, gazteluaren ondotik eginen zen, ez? Herria?

- Bai.

- Gamueko herria, gaztelua eta gero eginen zela.

- Ba, ba, ba, ba, etxiak... Hemen ez da /ezta/ e... herria ez da /ezta/... nola erranen dut? Ez da /ezta/ plaza'ik hemen, ez da /ezta/... ez da /ezta/ plaza'ik, ordian... etxiak joanak dira amiñi bat e... amiñi bat [...] dira.

13. Gamueko gazteluaren historia II

- **Erref:** BUE-001/014
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 00:40:11. **Bukatu:** 00:43:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

Eliza jauregiari atxikia da, eta nagusiak bere apaiza aukeratzen zuen. tontorra egin zuten gaztelua eraikitzeke gainean eta ondoren urez inguratu zuten. Dorrea ere bazuen, baina XVII. mendean bota zuten, eta gaur egun kontserbatzen den beste batean eskailerak jarri zituzten.

Transkripzioa

- Eta eliza bera ere, gaztelua eta gero egin zuten...

- Eliza... eliza atxikia da jauregiari.

- Ba.

- Ze'en eta jauregiko lürretan eina da eliza.

- A?

- Bai. Ta erten dute, hemengo jaunak, ordian, dem(b)ora hetan, Camou ziren...

- Ba...

- Eta hek nausiak ziren hemen, eta emaiten zuten lurra eliza'en egiteko, bena gero, dretxo bazuzten...

- A, bistan da.

- E, apezak, hemengoak, ez zen /etzen/ apezpikia, ez zien /etzien/ eta... emaiten e... hautatzen... nausia berak hautatzen zien be... beria, bere apeza, e.

- Bere apeza.

- Ez zien /etzien/... dretxo bazen. Hala. Lürra emaiten zien bana...

- Baina kasu e?

- Bena kasu!

- Eta eliza bera ere polita, ez? Ez da ikusten holako anitz, teilatu zorrotzarekin eta...

- Ba, ba, bada... hemen ingürian badira ba, ber e... zer e... urte hoitan einak aepres hola dira hemen, ingürian, elizak.

- Ilharren bada, ez?

- Bai.

- Ilharreko...

- Bai.

- Bai. Hemen bada ondo batzu ... guai e... ber... ber sistiman einak dira. Ba,

ba.

- Eta gero, beste... beste berezitasun bat, gaztelu honena, urez inguratua...

- Bai.

- ...dela, eta orain bon, [...] bai.

- Ba hori e... inguratia zendako? Deja, hori eina da, gaztelu hau, tuntur baten gainian, ta ingürian, ura eiten zuten, e... eman zuten. Tunturra horren eiteko, lehenik, arroilla eiten zuten, behar zen zilatu, ta lurra goiti eman, tunturra'en eiteko. Ez zen /etzen/ aski guai e... behar zen kanpotik eman gio... gero. Ta hori zendako zen? Ze'en ura zen lekian, bazen dem(b)oran hetan, zubia bazen, gazteluan sartzeko, atxaltzen zena, ta ura ingürian, zübüría altxatu ondoan, ez zen /etzen/ eta sartzén ahal, eta bon orduko defentsa zen, amiñi bat, bon.

- Ba, hori da. Gero, dorreak ere bazituen, ertz bakoitzean bat, ez?

- Dore... dorea bazen eta... lehenik bat, bena guai ez da /ezta/ gehio.

Fondazioniak hor dira, kanpoko partian dela, hor...

- Ba.

- Sartzia hok egiten zen, bena hori e... diela guai hamalagarren mendian, ez, geroztik, hori hamaseigarren mendian, ba... hamazazpigarren mendian ein zuten hori eta botatu, lehen parte hori. Ta dore, dorre hua, parte... lürre'at igortzi... igorri zuten. Ta bada beste dorre bat, hemen, kantoin, kantoinian dena, hor...

- Ba.

- Eta dem(b)ora hetan, ez zen /etzen/ eskalierrik, goiko dore hortan.

Eskalierra zen guai dorea guai barratu dien hortan, guai ez da /ezta/ hor. Ordian, hori eitian, gero ezari duzte eskalierrak hortan e, bena deparrian hor zen.

- Bon, bon.

- Ba, eskalierra.

- Bon, bon, biziki ontsa Louis.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-07-21

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com